

Diru-sarrerako Iturriak

Lagunbot proiektuak diru-sarrera iturri anitzeko eredua ezarriko du, jasangarritasun ekonomikoa bermatzeko eta balio proposamena bezero segmentu ezberdinetara zabaltzeko.

Diru-sarrerak beso robotikoaren eta softwarearen salmenta zuzena izango dira, baina horrez gain, harpidetza bidez diseinu eta **txantilo berrietara sarbidea** eskainiko dugu. Kode irekiko bertsio bat doan izango da, eta funtzio aurreratuak dituen bertsio komertziala merkaturatuko da. Horrek aukera ematen du erabiltzaile guztiek Lagunbot eskuratzeko, baina aldi berean proiektuak jasangarritasuna bermatzen du.

Prezio bereziak eskainiko ditugu zentro terapeutiko eta hezitzaileentzat, eta erakunde publikoekin lankidetzak bilatuko dugu, proiektua gizartean zabaltzeko eta benetan behar dutenengana iristeko. Horrela, teknologia irisgarriagoa bihurtuko da eta inpaktu soziala handiagoa izango du.

1) Salmenta Zuzena / Lizentziak

Oinarrizko diru-sarrerak beso robotikoaren eta softwarearen salmenta zuzenetik etorriko dira. Softwareari dagokionez, bi bertsio merkaturatuko dira lizentzia estrategiarekin:

- Kode irekiko bertsioa: doan eskuragarri izango da, komunitateari eta ikerketa-erabilerei laguntzeko.
- Bertsio komertziala: funtzio aurreratuak, interfaze profesionala eta laguntza teknikoa eskainiko ditu.
 - Prezioa: 250 eta 500 euro artean, erabiltzaile motaren eta aukeratutako paketeen arabera.



Beso robotikoaren prezioa oraindik zehaztu gabe dago, baina prototipoaren kostuen arabera, 1.500–3.000 € ingurukoa izan liteke, materialaren eta fabrikazio bolumenaren arabera.

2) Harpidetza Eredua

Diseinu eta txantilo berrietara sarbidea harpidetza bidez eskainiko da. Honek erabiltzaileei aukera emango die Lagunbot etengabe eguneratzeko eta pertsonalizatzeko.

- Harpidetza arrunta: 10 € hilean, erabiltzaile indibidualentzat.
- Harpidetza profesionala: 20 € hilean, zentro terapeutiko eta hezitzaileentzat, erabilera komertziala eta laguntza teknikoa barne.
- Helburua: etengabeko diru-sarrera txiki baina egonkorra sortzea, eta erabiltzaileek softwarea eguneratuta mantentzea.



3) Lankidetza Publiko-Pribatua

Erakunde publikoekin eta fundazioekin lankidetza bilatuko dugu, Lagunbot gizartean zabaltzeko eta baliabide gutxi dituzten erabiltzaileengana iristeko.

- Zentro terapeutiko publikoak: eskaintza bereziak eta doako prestakuntza.
- Hezkuntza-erakundeak: robotaren erabilera pedagogikoa sustatzeko.
- Gobernu eta fundazioekin lankidetza: proiektu pilotuak eta finantzaketa partekatua.

Lankidetza hauek 3.000 eta 10.000 € arteko ekarpenak sor ditzakete, erakundearen tamainaren eta proiektuaren eskalaren arabera.